



ETSAI GORDEA



DBH 2

FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Jokin de Pedro

IZENBURUA: Etsai gordea

ILUSTRATZAILEA: Iker Ayestaran (azala)

ITZULTZAILEA: –

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Donostia, Elkar, 2013

ORRIALDE KOPURUA: 127

BILDUMA: taupadak

ISBN: 978-84-9027-081-3

ADIN TARTEA: 14 urtetik aurrera

IRUZKINA

Eleberri psikologiko poliziako honetako protagonistak, telebistako kazetaria, mehatxuzko anonimo batzuk jasotzen ditu, baina ezin asmatu dabil zeinek bidali dituen, ez baitu etsairik, nonbait. Bakarrik bizi da, baina iloba bat harekin bizitzera joan da, lana dela-eta, bera ere arriskuan jarriz. Gauzak okertuko dira postaz lehergailugutun bat iristen zaiolarik. Kasuaz arduratzen den inspektorea kazetariaren iraganean miazten hasiko da ustezko etsaiaren bila.

Erraz irakurtzen den liburua da, jakin mina ere sortzen duena.



IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

Bitartekaritza, irakurketa sustatzeko ariketak: Eleberri hau hipotesiak lantzeko erabili daiteke, irakurketa kolektibo bat eginez, ozen irakurrita-edo (bitartekariak, ahal dela). Prozedura hau izan liteke: Testuak hamabost atal dituenaz, hiru astetan irakur liteke, egunero 15' emanda liburuari. Lehen egunean liburuan agertzen diren mezu anonimoak fotokopiatu eta banatu ikasleen artean (lauzpabost), eskatu iritzia tramaren hariari buruz eta ondoren kronologikoki ordena ditzatela mezu hauek.

Gaiak: eleberri poliziakoa. Sexualitatea; sexu harreman seguruak. Psikosia, buru gaixotasunak.

1.- Sexualitatea; sexu harreman seguruak: Liburuko protagonistak nerabezaroan izan zuen jarrera arduragabearen ondorioak pairatzen ditu; izan ere, institutuko neska bat haurdun utzi zuen, baina gero ez zion inolako jaramonik egin, eta horren ondorioz, neskak ikasketak utzi eta abortatu egin zuen. Agian, sexualitate gaia lantzeko bidea eman dezake. Sexu-aholkulari baten bisita edukitzeko aitzakia polita da.

2.- Eleberri poliziakoa: Nobela mota honen azterketa literarioa egin liteke: sorrera, izenburu nagusiak eta idazle estimatuenak, ezaugarri estilistikoak eta euren bilakaera,...

- Ikerketa taldeek gazte literaturaren azpi-atal osatzen dutela eta, azpisail honetan sakondu liteke. Hasiera Bostak (Famous five / Enid Blyton) sailarekin hasi zena, ondoren “Hiru ikertzaileak” (The three Investigators / Robert Arthur) edota “Sei lagunak” (Les six compagnons / Paul-Jacques Bonzon) bildumekin jarraitu zuten. Gaur egun “Lau lagun eta erdi” (4 ^{1/2} freude / Joaquim Friedrich) bezalako bildumak daude.
- A. C. Doyle, E. A. Poe, A. Christie,... Bezalako idazleen obran arakatu daiteke. Euren arteko antzekotasun eta aldeak arakatuaz, edota haietako baten obran sakonduaz. Esaterako:
 - A.C. Doyle: Sherlock Holmesen istorioak, 1 (Elkar, 2000) eta 2 (Elkar, 2009), Mundu galdua (Desclee, 1997), Brasilgo katua (Desclee, 2006),...
 - E. A. Poe: Rue Morgueko hilketak (Elkar, 1996)
 - A. Christie: Asesinato en el Orient Express filma (1974, Sidney Lumet)

Eskuarki genero literarioen azterketa egin liteke, intrigazkoak zein leku hartzen duen zehaztu eta besteekiko bereizten duten ezaugarriak bilatu. Hartarako bidean estilo literario nagusietako obren irakurketa eta ondorengo alderaketa proposa liteke.

3.- Psikosia, buru gaixotasunak: Badira eleberri esanguratsuak eritasun mota hauen inguruan josiak. Irakurketa kateatuak egin litezke eta zeregin horretarako “Zekale artean harrapaka” luzea izanik ere, ez da jarraipen kaskarra. Interneten dago testua, euskaraz, [hemen](#). Testu arinagoa eta infantilagoa nahi bada, M. Landaren “Txan fantasma” oso egokia izan liteke. Egile berak badu buru eritasunei buruzko beste bat



LIBURU GAZTEA 2014-2015



“Krokodiloa ohe azpian”, irakurle helduagoentzat. Azkenik, ikuspuntu psicotikotikotik irakur liteke ere, esaterako, On Kixoteren pasarteren bat, haize errotak erraldoi ikusten dituenekoa, esaterako.